

Garraio publikoen ordutegi aldaketa gaurtik aurrera

Txinbarri Aldizkaria 2020-04-14 12:30



Gaur funtsezko ez diren zenbait jarduera lanean hasi direla-eta, garraio publikoek haien eskaintza moldatuko dute. TSSTK eta Euskotrenek zerbitzu berriak ezarriko dituzte. Horrez gain, erabilera bakarrek maskarak banatzen ari dira erabiltzaileentzat

Larrialdi egoeran zehar garraio publikoak neurriei egokitzten ari dira, gaur funtsezkoak ez diren jarduerak lanean hasiko dira eta horretatik TSST eta Euskotrenek asteen zeharreko zerbitzuetan egongo diren ordutegietan egongo direla jakinarazi dute.

Euskotrenek bidaia-irteerak kopuru handiagoa aurreikusten denean [errefortzu zerbitzuak](#) eskainiko direla jakitera eman du. Halere, ordutegia murriztua izaten jarraituko du, Euskotrenek operatutako gainerako zerbitzuetan bezala.

TSSTK ere [ordutegiak](#) moldatu ditu. Martxoaren 25 eta 27 artean indarrean sartu ziren ordutegiak mantenduko diren arren, zerbitzu berriak gehitu ditu egunean zehar. Informazio gehiago [lurraldebus.eus](#) edo 900 300 340 telefonon.

Maskara banaketa eta beste neurri batzuk

Neurri horren harira, goizeko 10:00ak arte, garraio publikoetan erabilera bakarrek maskarak banatu dituzte DYA eta Babes zibileko kideek. Ez dira amaitu eta bihar ere, jarraituko dute lanean. Metroko babes tartea mantendu ezin den kasuetan, erabiltzaileen babesa ziurtatzeko neurria hartu zuten atzo Espainiako Gobernuak delegaritzak eta Eusko Jaurlaritzak egindako bileran. EAEn, guztira, 494.000 maskara emango dira; horietatik 162.000 Gipuzkoan banatuko dira.


Honetaz gain, COVID-19a eusteko beste neurri batzuk ere ezarri dituzte garraio publikoek. Esatea baterako, Amarako Bezero Arreta Bulegoetan arreta presentziala bertan behera geratu dela eta jakinarazpen berrira arte itxita daudela gogora arazi du Euskotrenek.

Erabiltzaileek Euskotrenekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hainbat bide dituzte: 944 333 333 telefonoa; BABeko posta elektronikoak (oaadon@euskotren.eus // oaacz@euskotren.eus // oaadur@euskotren.eus // oaq-ger@euskotren.eus). Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko, berriz, www.euskotren.eus web orrialdea, @euskotrenEJGV twitter kontua; eta app ofiziala ere daudela hartarazi du.

Era berean, Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca (ETS) eta Euskotren trenetako eta tranbiatik azpiegitura desberdinetan eta garraio publikoko zerbitzu desberdinen material mugikorren parkean ere intentsitate handiko garbitasun lanak egiten ari direla nabarmendu du.

[Gizartea](#)

[Erantzun](#)



Ikusienak

 <p>ATLO danborrada elkarteak afaria gojingo du San Pedro bezperan Txinbarri Aldizkaria eka 17, 16:30 Lasarte-Oria</p>	 <p>Bederatzi positibo berri, FAEn Koronabirusa Lasarte-Oria Txinbarri Aldizkaria eka 17, 15:26 Lasarte-Oria</p>	 <p>Zerbaki berezi bat egpera berezi batean Koronabirusa Lasarte-Oria Txinbarri Aldizkaria eka 17, 11:47 Lasarte-Oria</p>	 <p>2020-2021 ikasturterako eskola materiala erosteko diru laguntzak aurkeztu ditu udalak Txinbarri Aldizkaria eka 17, 16:47 Lasarte-Oria</p>	 <p>Ariguneak, entitate eta enprezetan euskaraz eroso aritzeko Euskararen 10. Maratonia eta Euskaraldia Txinbarri Aldizkaria eka 17, 12:45 Lasarte-Oria</p>	 <p>Datorren ikasturterako izen-ematea, zabalik eta online Txinbarri Aldizkaria eka 16, 14:40 Lasarte-Oria</p>
--	--	---	---	--	--

Ttakun Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa
943 37 14 48
txinbarri@txinbarri.eus | txinbarri@ttakun.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS



Gertuko informazioa, euskaraz